



2013

**Kudeaketari buruzko txostena**  
**Informe Gestión**

MERKATARITZAKO FORU SOZIETATEAK / SOCIEDADES MERCANTILES FORALES

**Euskalduna Jauregia, A.B.**  
**Palacio Euskalduna, S.A.**

Atzeraldiaren eta krisi ekonomikoaren ondorioek neurri handian baldintzatu dute 2013. urtea. Hala ere, ekitaldiaren amaieran Euskalduna Jauregiak cash-flow positiboa izan du, hori inauguratu zenetik gainerako ekitaldietan gertatu den bezala. Horren ondorioz, 2013an ere ez da beharrezkoa izan ustiapenerako diru-laguntzak erabiltzea.

Hainbat urtetan inbertsioak eta ekintza-planak gauzatu ondoren, 2013ko ekitaldian DALCO eta UNE 170001-2 arauen araberako Irisgarritasun Unibertsalaren ziurtagiriak eskuratu dira gure instalazio guztietarako, baita U.S. Green Building Council-ek emandako irisgarritasunaren LEED ziurtagiria ere. Ziurtagiri horiek bi arlo garrantzitsuri eragiten diete: zerbitzu irisgarriak ematea lortzea eta irisgarritasunarekin eta ingurumenarekin dugun konpromisoa areagotzea.

2013ko ekitaldian urteko egunen % 92ko okupazioa lortu da. Okupazio indize horri honakoak gehitu behar zaizkio, 416 kongresu eta bilera, 328 emanaldi eta 494.430 bertaratu. Horrek ahalbidetu digu 2013. urteari begira ezarritako helburuak aise eta erraz lortu izana eta espainiar estatutako kongresu jauregien rankingean daukagun kokapen pribilegiatuari eutsi izana.

Euskalduna jauregiko instalazioetan 744 ekitaldi eta emanaldi egin ziren 2013. urtean barrena

Ekitaldian, eta kalitatearen aldeko apustuarekin jarraituta, Euskalduna Jauregiak honako ziurtagiri hauek berriitu ditu: ISO 9001:2008 Kalitatearen Kudeaketa, ISO 14001/2004 Ingurumen Kudeaketa, OHSAS 18001/2007 Laneko Segurtasun eta Osasun Kudeaketa eta UNE 187004/2008 Biltzar Jauregien Turismo Kalitatea. Dokumentu honetan adierazi bezala, beste bi ziurtagiri eskuratu dira: Irisgarritasun Unibertsalaren UNE 170001-2 eta U.S. Green Building Council-ek emandako LEED ziurtagiria.

Euskalduna Jauregia cierra el ejercicio 2013, año fuertemente condicionado por los efectos de la recesión y de la crisis económica, con un cash flow positivo al igual que el resto de los ejercicios habidos desde su inauguración, lo que ha hecho innecesarias, un año más, la utilización de subvenciones de explotación.

Durante el ejercicio 2013, tras años de realizar inversiones y planes de acción, se ha conseguido para la totalidad de nuestras instalaciones, los certificados de Accesibilidad Universal según normas DALCO, UNE 170001-2, así como el certificado LEED de sostenibilidad concedido por el U.S. Green Building Council. Dichos certificados, inciden en dos áreas de relevancia: conseguir una prestación de servicios accesibles y acrecentar nuestro compromiso con la sostenibilidad y el medioambiente.

En el año 2013 se ha alcanzado una ocupación del 92% de los días del año. Este índice de ocupación, unido al número de congresos y reuniones 416, las 328 representaciones los 494.430 asistentes nos ha posibilitado alcanzar los objetivos marcados para el año 2013 y nos ha permitido mantener nuestra privilegiada posición en el ranking de Palacios de Congresos del Estado español.

En las instalaciones de Euskaduna se realizaron a lo largo de 2013 un total de 744 eventos y representaciones.

Durante el ejercicio, y como continuación de la apuesta por la calidad, Euskalduna ha renovado las certificaciones de Gestión de Calidad ISO 9001:2008, Gestión Medioambiental ISO 14001/2004, Gestión de Seguridad y Salud en el trabajo OHSAS 18001/2007 y de Calidad Turística de Palacios de Congresos UNE 187004/2008 y tal y como se recoge en éste documento se han obtenido dos nuevas: UNE 170001-2 de Accesibilidad Universal y LEED por el U.S. Green Building Council.

## Kudeaketari buruzko txostena Informe Gestión

MERKATARITZAKO FORU SOZIETATEAK / SOCIEDADES MERCANTILES FORALES

**Euskalduna Jauregia, A.B.**  
**Palacio Euskalduna, S.A.**

Hori guztia dela eta, Euskalduna jauregiak lehen mailako erreferentzi puntua izaten jarraitzen du, kongresu eta bilera jarduerak aurrera eramateko eta askotariko kultur, gizarte eta aisialdi adierazpideak abiarazteko.

### JARDUERA

Aurreko ekitaldian ere aurreikuspen guztiak gainditu dira: 416 biltzar eta bilera, eta 328 musika emanaldi eta ikuskizun.

### Biltzar eta bilera jarduerak

Biltzar eta bilera kopurua honela banatzen da:

Por todo ello, el Palacio Euskalduna sigue siendo un punto de referencia de primer orden para un gran número de actividades congresuales y de reunión así como para múltiples manifestaciones culturales, sociales y de ocio.

### ACTIVIDAD

En este ejercicio se ha alcanzado la cifra de 416 reuniones y eventos congresuales y 328 representaciones musicales y espectáculos.

### Actividad Congresual y de Reuniones

El número de congresos y reuniones se distribuye en:

<input type="checkbox"/> Biltzarrak eta antzekoak / Congresos y Asimilados	27
<input type="checkbox"/> Batzar eta Asanblada Orokorrak /Juntas y Asambleas Generales	16
<input type="checkbox"/> Enpresako Ospakizunak eta Konbentzioak /Convenciones y Actos de Empresa	25
<input type="checkbox"/> Mintegiak eta Jardunaldiak /Seminarios y Jornadas	276
<input type="checkbox"/> Gizarte Ekitaldiak /Actos Sociales	25
<input type="checkbox"/> Ikuskizuna duten Gizarte Ekintzak /Actos Sociales con Espectáculo	3
<input type="checkbox"/> Erakusketak/Exposiciones	11
<input type="checkbox"/> Bestelakoak (Erakusketak, irrati eta telebista saioak, eta abar.) / Varios (Exposiciones, programas de radio y TV, etc..)	33

Maiatza, iraila eta urria biltzar gehien izan dituzten hilak izan dira: bakoitzak sei izan ditu. Gainera, azaroak urteko jarduera handiena bildu du, 59 bilera izan baititu. Alde horretatik, maiatza eta ekaina ere nabarmendu behar dira.

Bereziki nabarmenak izan dira Ospitaleen eta Osasun Kudeaketaren 18. Biltzar Nazionala, Publizitate Komunikazioaren El Sol 2013 Iberoamerikako Jaialdia, Nefrologiako XLIII. Biltzar Nazionala, Laborategi Klinikoen VII. Biltzar Nazionala, 2013 European Cleantech Forum izenekoa, Katolikoen eta Bizitza Publikoaren VIII. Jardunaldiak, Energia Zerbitzuetako Enpresen (ESE) III. Biltzarra, Serpa Summit 2013 izenekoa, Fourth Internacional Conference on Adoption Research ICAR 4 delakoa, Fisioterapiaren

Mayo septiembre y octubre, con seis, fueron los meses que registraron mayor número de congresos. Además, noviembre aglutinó la mayor actividad del año, con 59 eventos de reunión. También destacaron en este aspecto mayo y junio.

Resultaron especialmente significativos el 18 Congreso Nacional de Hospitales y Gestión Sanitaria, el Festival Iberoamericano de la Comunicación Publicitaria El Sol 2013, el XLIII Congreso Nacional de Nefrología, el VII Congreso Nacional de Laboratorio Clínico, el 2013 European Cleantech Forum, las VIII Jornadas Católicos y Vida Pública, el III Congreso sobre Empresas de Servicios Energéticos (ESE), el Serpa Summit 2013, el Fourth Internacional Conference on Adoption Research ICAR 4, el Congreso



2013

**Kudeaketari buruzko txostena**  
**Informe Gestión**

MERKATARITZAKO FORU SOZIETATEAK / SOCIEDADES MERCANTILES FORALES

**Euskalduna Jauregia, A.B.**  
**Palacio Euskalduna, S.A.**

Nazioarteko Biltzarra, Manager Business Forum 2013 delakoa eta Farmazia Arretako VIII. Biltzar Nazionala. Halaber, Espainiako Biltzar Jauregien Elkartearen (APCE) XI. Biltzarra egin da, garrantzi berezia izan duena.

Batzarrak eta biltzarrak martxotik ekainera bitartean egin dira. Euskalduna Jauregiak honako ekitaldi hauek hartu ditu barne, besteak beste: BBVAren, Iberdrolaren eta Faes Farmaren Batzar Nagusiak, Eroskiko Lan Bazkideen Prestamen Batzarra, Innobasque 2013ren Biltzarra eta Athletic Clubaren Ohiz kanpoko Biltzarra.

Ekintza gehiago gauzatu dira bertan, adibidez, Fives-en bigarren mendeurrena: industria aurrerapeneko 200 urte, CEBEK 2012 enpresa topaketa, Fun & Serious Games Festival, ingeniari, ekonomialari eta medikuen promozioen inbestidura-ekitaldia eta diploma-banaketa, eta Bizkaiko Futbol Federakundearen mendeurrena.

Horrez gain, Euskalduna Jauregian hainbat alderdi politikoren eta sindikatu erakunderen bilerak eta ekitaldiak antolatu dira.

Gainera, erakusketa jendetsu eta erakargarriak egin dira, hala nola "Clickek Bilbo inbaditu dute", Unitour Unibertsitateen Azoka, Bizkai-Vinos XV. aretoa, Frankinorte aretoa, Lehen mailako Marken Outleta, SIE Higiezinaren eta Dekorazioaren erakusketa eta "Bizitza oso bateko jostailuak" erakusketa.

**Jarduera musikal eta artistikoa.**

Beste alde batetik, musikaren eta ikuskizunen jarduera 328 emanaldikoa izan zen 2013. urtean. Emanaldi horietatik 159 auditoriumean izan ziren, 95 antzerki aretoan, 11 Areto Barrian eta 63 jauregiaren beste areto batzuetan.

2013an Euskalduna Jauregian musika, abesti edo arte eszenikoetako hainbat pertsona ospetsu aritu dira. Horietako batzuk nabarmenduko ditugu: Lawrence Foster, Frank Beermann, Ronald Zollman, Carlo Rizzi, Tamara Wilson, Sandra

Internacional de Fisioterapia, el Manager Business Forum 2013 y el VIII Congreso Nacional de Atención Farmacéutica. Asimismo acogió el XI Congreso de la Asociación de Palacios de Congresos de España (APCE) que tuvo singular relevancia.

Las Juntas y Asambleas se concentraron entre los meses de marzo y junio. El Palacio Euskalduna acogió, entre otras, las Juntas Generales del BBVA, de Iberdrola y de Faes Farma, la Junta Preparatoria de Socios de Trabajo de Eroski, así como la Asamblea de Innobasque 2013 y la Asamblea Extraordinaria del Athletic Club.

Asimismo fue escenario, entre otros, del Bicentenario Fives: 200 años de progreso industrial, del Encuentro Empresarial CEBEK 2012, del Fun & Serious Games Festival, de los actos de investidura y entrega de diplomas de promociones de ingenieros, economistas y médicos y del Centenario de la Federación Vizcaína de Fútbol.

También se han desarrollado en el Palacio Euskalduna numerosas reuniones y actos, de diferentes partidos políticos y organizaciones sindicales.

Además se celebraron concurridas y atractivas exposiciones como "Los Clicks invaden Bilbao", la Feria de Universidades Unitour, el XV Salón Bizkai-Vinos, el Salón Frankinorte, el Outlet Primeras Marcas, el Salón Inmobiliario y Decoración SIE y la muestra "Juguetes de toda la vida"

**Actividad Musical y Artística.**

Por su parte, la actividad musical y de espectáculos ascendió en 2013 a un total de 328 representaciones. De ellas, 159 tuvieron lugar en el Auditorium, 95 en la Sala Teatro, 11 en la Sala Barria y 63 en otras Salas del Palacio.

A lo largo de 2013 han actuado en el Palacio Euskalduna numerosas figuras de la música, el canto o las artes escénicas entre las que cabe citar, por ejemplo, a Lawrence Foster, Frank Beermann, Ronald Zollman, Carlo Rizzi, Tamara

**Kudeaketari buruzko txostena**  
**Informe Gestión**

MERCATARITZAKO FORU SOZIETATEAK / SOCIEDADES MERCANTILES FORALES

**Euskalduna Jauregia, A.B.**  
**Palacio Euskalduna, S.A.**

Radvanovsky, Inva Mula, Leo Nucci, Patricio Ciofi, Celso Albelo, Lang Lang, David Bisbal, Raphael, Isabel Pantoja, Ken Zazpi, Symphonic Rhapsody Queen edo Aida Gómez.

Eta honako hauek arrakasta handia izan dute: "Euskaldunak eta Dantza" IX. Gala, Lucía Lacarra izar gonbidatua izan duena; "Aracaladanza", Dantzaldia zikloaren barnean; Kubako Ballet Nazionalaren "Coppelia"; eta "Grease", "Algo de mí", "El Mago de Oz" eta "El Libro de la selva" musikalak.

Euskalduna Jauregiaren Aste Nagusia zikloak 40.881 ikusle izan ditu, guztira, Jauregiaren lau aretotan (Auditoriuma, Antzoki Aretoa, A-3 Aretoa eta Areto Barria), 1.366.239 euro biltzea eraginda.

"La Bella y la Bestia" musikalak arrakasta handia izan du, guztira, 18.899 ikusle izan dituela. Halaber, nabarmenak dira "Hermanas" antzezlanak (7.789 ikusle) eta "Katuska" zarzuela (4.367 ikusle).

Horrez gain, Gabonetako zikloko programazioaren barnean eskainitako ikuskizunetara eta "Bizitza oso bateko jostailuak" erakusketara 39.264 ikusle joan dira, 538.000 euro, guztira, ordaindu dituztenak.

Sarrera salmentari gehi ikusle (302.286) eta emanaldi kopuru handiei esker, estatuko entzunareto publikoen artean postu nabarmena lortu dugu.

**Okupazio datuak**

Okupatze datuetara pasatuz gero, honakoak aurkituko ditugu:

- Okupatze egunak: 335
- Urte osoko okupatze ehunekoa: %93 (365 egunetik)

Wilson, Sandra Radvanovsky, Inva Mula, Leo Nucci, Patricio Ciofi, Celso Albelo, Lang Lang, David Bisbal, Raphael, Isabel Pantoja, Ken Zazpi, Symphonic Rhapsody Queen o Aida Gómez.

Cosecharon importantes éxitos la IX Gala "Los vascos y la danza", con Lucía Lacarra como gran estrella invitada; "Aracaladanza", dentro del ciclo Dantzaldia; el Ballet Nacional de Cuba con "Coppelia" y los musicales "Grease", "Algo de mí", "El Mago de Oz" y "El Libro de la selva".

El Ciclo Aste Nagusia del Euskalduna congregó en cuatro salas del Palacio (Auditorium, Sala Teatro, Sala A-3 y Sala Barria) un total de 40.881 espectadores, con una recaudación acumulada de 1.366.239 euros.

Logró un gran éxito el musical "La Bella y la Bestia" que tuvo un total de 18.899 espectadores. También destacaron la obra de teatro "Hermanas", con 7.789 espectadores y la zarzuela "Katuska", con 4.367.

Por otra parte, 39.264 espectadores, que dejaron en taquilla 538.000 euros, asistieron a los diferentes espectáculos y a la exposición "Juguetes de toda la vida" ofrecidos durante la programación del ciclo navideño.

La venta total de entradas, unida a la cifra de espectadores (302.286) y al número de representaciones llevadas a cabo nos han llevado a una destacada posición entre los Auditorios Públicos españoles.

**Datos de ocupación**

Esta actividad traducida a datos de ocupación, arroja los siguientes datos:

- Días de ocupación neta 335.
- Porcentaje de ocupación anual (sobre 365 días): 92 %



2013

**Kudeaketari buruzko txostena**  
**Informe Gestión**

MERKATARITZAKO FORU SOZIETATEAK / SOCIEDADES MERCANTILES FORALES

**Euskalduna Jauregia, A.B.**  
**Palacio Euskalduna, S.A.**

**Ikusle kopuruaren datuak**

2013. urtean zenbatu den ikusle kopurua 494.430 da.

**Datos de asistencia**

El número de asistentes estimado en el año 2013 es de 494.430 el más alto desde la inauguración.

**Datu ekonomikoak.**

2013ko ekitaldian, Elkartearen diru-sarrerak 7.059.630,39 euro izan dira guztira, honela banatuta:

**Datos económicos.**

En el ejercicio 2013 los ingresos totales de la Sociedad se han cifrado en 7.059.630,39 Euros, con el siguiente desglose:

	Euros
<input type="checkbox"/> Ustiapenagatiko diru-sarrerak / Ingresos de Explotación	6.286.080,27
<input type="checkbox"/> Finantza diru-sarrerak / Ingresos financieros	214.345,32
<input type="checkbox"/> Kapital subentzioak, emaitzetara aldatuak / Subvenciones de Capital traspasadas a resultados	559.204,80

Gastuen kapituluak 8.409.716,12 euroko zenbatekoa erakusten du, ondoko desglose honekin:

El capítulo de gastos arroja un importe de 8.409.716,12 Euros, con el siguiente desglose:

Concepto	Euros
<input type="checkbox"/> Langileriaren gastuak / Gastos de personal	1.311.998,55
<input type="checkbox"/> Amortizaziorako zuzkidurak / Dotación a la amortización	2.025.567,41
<input type="checkbox"/> Bestelako ustiapen gastuak /Otros gastos de explotación	5.070.964,43
<input type="checkbox"/> Finantza diru-irteerak/Gastos financieros	1.185,73

Kontusail horietatik ekitaldi honetan 116.276,88 euroko cash-flow positiboa ondorioztatu da.

Estas partidas han dado lugar a un cash-flow positivo en el ejercicio de 116.276,88 Euros.

Ekitaldiaren emaitza 1.350.085,73 euroko galera izan da.

El resultado del ejercicio es de 1.350.085,73 Euros de pérdidas.

2013an kapitalizatutako gastuen bolumena ondorengo hau izan da:

El volumen de costes capitalizados en 2013 ha sido el siguiente:



2013

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOAREN KONTU OROKORRA  
CUENTA GENERAL DEL TERRITORIO HISTORICO DE BIZKAIA

**Kudeaketari buruzko txostena**  
**Informe Gestión**

MERKATARITZAKO FORU SOZIETATEAK / SOCIEDADES MERCANTILES FORALES

**Euskalduna Jauregia, A.B.**  
**Palacio Euskalduna, S.A.**

Kontzeptua / Concepto	Euro/Euros
Bulegoak baterabiltzea / Reunificación de oficinas	370.666,61
Eraikinaren eta instalazioen iraunkortasuna hobetzeko jarduketak (LEED) / Actuaciones para las mejoras de sostenibilidad del edificio e instalaciones (LEED)	264.655,83
Ikus-entzunezko ekipoak berritzea eta erostea (nonitoreak, plasmak, mikrofonoak...) / Renovación y compra equipos audiovisuales (Monitores, plasmas, microfonos...)	202.165,05
Euskalduna Jauregiaren eraikina hobetzeko obretan egindako inbertsioak / Inversiones realizadas en obras para la mejora del Edificio de Euskalduna	101.728,66
Irisgarritasuna hobetzeko asmoz, gaur egungo instalazioak egokitzeko lanak / Adecuación de las instalaciones actuales a la mejora de la accesibilidad	93.546,39
Kongresuen altzariak berritzea (erakusmahaiak, palak, aulkiak, mahaiak, euritako ontziak...) / Renovación de mobiliario de congresos, mostradores, palas, paragüeros, sillas, mesas...	78.413,00
Txarteldegi berriak egokitzeko obrak / Obras de adecuación de las nuevas taquillas	69.464,78
Areto Barriko besaulkien biltegia / Almacén de butacas Sala Barria	55.436,00
Bulegoen altzariak berritzea / Renovación de mobiliario de oficina	42.707,00
Instalazioetako akustika hobetzea / Mejoras acústicas de las instalaciones	35.514,50
Informazio prozesuetarako ekipoak berritzea / Renovación de equipos para procesos de información	31.821,94
Euskalduna Jauregiaren beste instalazio batzuetan egindako inbertsioak / Inversiones realizadas en otras instalaciones del Euskalduna	26.597,79
Instalazio elektrikoetan egindako inbertsioak / Inversiones realizadas en instalaciones eléctricas	24.468,04
Jatetxeetako ekipamendua berritzea / Renovación equipamiento restaurantes	23.350,77
Areto Barriko altzariak / Mobiliario Sala Barria	15.718,48
Iturgintza instalazioetan egindako inbertsioak / Inversiones en instalaciones de fontanería	13.114,79
Hozkailua aldatzea / Renovación enfriadora	12.340,75
Seinaleztapen elementuak berritzea / Renovación de elementos de señalítica	11.777,00
Nahasketa-mahaia berritzea / Renovación mesa de mezclas	10354,08
Kudeaketa aplikazio informatikoak / Aplicaciones informáticas de gestión	2.166,38
Guztira / Total	1.486.007,84

Urtean Sozietateak bere langile taldeari eutsi dio, eta 2013ko abenduaren 31n 22 pertsonak osatzen zuten hori.

La Sociedad, durante el año ha mantenido su plantilla que a 31 de diciembre de 2013 es de 22 personas.



2013

**Kudeaketari buruzko txostena**  
**Informe Gestión**

MERKATARITZAKO FORU SOZIEATEAK / SOCIEDADES MERCANTILES FORALES

**Euskalduna Jauregia, A.B.**  
**Palacio Euskalduna, S.A.**

### 2014rako aurrerapena

2014an Jauregia biltzar handi eta garrantzitsuen egoitza izango da. Honako hauek gauzatuko dira, besteak beste: BERPITZEAREN XII. BILTZARRA, World Foundry Munduko 71. Galdaketa Kongresua, Publizitate Komunikazioaren El Sol 2014 Iberoamerikako Jaialdia, SEPAR 47. Biltzar Nazionala, Pneumologiaren eta Bularraldeko Kirurgiaren Espainiako Sozietatea, Oftalmologiaren Espainiako Sozietatearen 90. Biltzarra, Semergen 36. Biltzar Nazionala, Lehen mailako Arretako Medikuen Espainiako Sozietatea eta APD Zuzendarien III. Biltzar Nazionala.

Gainera, garrantzi zientifiko handia eta partaide asko dituzten beste bilera batzuk antolatuko dira: Albaitaritzako Espezialitateen GTA AVEPA 2014 XIII. Biltzarra; SERMEF Errehabilitazio eta Kirol Medikuntzaren Espainiako Sozietatearen 52. Biltzar Nazionala; Menopausiaren Azterketarako Espainiako Elkartearen XIII. Biltzar Nazionala, "Katolikoak eta Bizitza Publikoa Euskal Autonomia Erkidegoan" IX. Jardunaldiak; Manager Business Forum 2014 izenekoa eta Dermatologia eta Benereologiako Espainiako Akademiaren Kosmetika eta Terapia Dermatologiaren Espainiako Taldearen (AEDV 2014) bilera.

Aurtengo helburuak okupatearen %85 gutxienez izango dira, eta ustiaketan diru-laguntzarik ez jasotzea.

### Avance 2014

En 2014, el Palacio será sede de grandes e importantes eventos congresuales los que cabe destacar el XII Congreso de Resucitación, el 71º Congreso Mundial de Fundición World Foundry, el Festival El Sol Iberoamericano de la Comunicación Publicitaria 2014, el 47º Congreso Nacional SEPAR, Sociedad Española de Neumología y Cirugía Torácica, el 90º Congreso de la Sociedad Española de Oftalmología, el 36º Congreso Nacional Semergen, Sociedad Española de Médicos de Atención Primaria y el III Congreso Nacional de Directivo APD.

Además, tendrán lugar otros eventos de reunión de gran dimensión científica y nutrida presencia de asistentes: El XIII Congreso de Especialidades veterinaria GTA AVEPA 2014; el 52º Congreso Nacional de la Sociedad Española de Rehabilitación y Medicina Deportiva SERMEF; el XIII Congreso Nacional de la Asociación Española para el Estudio de la Menopausia, las IX Jornadas "Católicos y Vida Pública en el País Vasco"; el Manager Business Forum 2014 y la Reunión del Grupo Español de Dermatología Cosmética y Terapéutica de la Academia Española de Dermatología y Venereología (AEDV 2014)

Los objetivos para el año se sitúan en una ocupación mínima del 85% y la no utilización de subvenciones para la explotación.